


DROGETEN

ITURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 237. zkia. 2015eko iraila



**25 urtez
herriko istorioak idazten**

**euskarak
batzen
gaitu**
EL EUSKERA
NOS UNE

Ikastaroak

Eskaintza eta ordutegi zabalak eta Txandakako taldeak

Ikastaro bereziak

(gurasoak, merkatariak, ostalaritza,...)

Perfilak

(Administrazioa, Osakidetza, Hezkuntza,...)

HABEren 1., 2., eta 3. mailak eta EGA
Azterketa ofizialak maiatzean eta urrian

16 urtetik gorakoentzat

Bekak eta langabetuek eta lehen mailako ikasleek
MATRIKULA ERDIA

Izena emateko epea irailaren 25era arte

MATRIKULA ORDUTEGIA

9:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 20:00etara

ERMUKO UDAL EUSKALTEGIA

Teresa Murga Eraikina. Goienkale, z/g 2. solairua

Tf.: 943 17 09 25

euskaltegia@udalermua.net

<http://www.ermua.es/pags/euskaltegia>

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.org

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran,
Igone Amesti, Ibaia
Azagirre, Estibalitz González
eta Ekhi Velar.

KOORDINAZIOA**ETA MAKETAZIOA:**

Ekhi Velar.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Ekhi Velar

LAGUNTZAILEAK:

Amalia Arriaga, Antonio
Hernández 'Cuco',
Patxi López,
Pello Mugarza,
Valentin Mugarza eta
Komite Internazionalistak.

ARGAZKIAK:

Javi Crespo, Karmele
Gisasola, Asier Ibaibarriaga,
Ibaia Azagirre, Ixa
Rodriguez, Estibalitz
González, PAACE, Valentin
Mugarza eta Ekhi Velar.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Ainhoa Garitagoitia, Nora
Mateos eta Olatz Vidal.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.

*Drogeteniturrrik ez du
bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Bertoko ugaztunak

...Gure baserriarren ahotik

Sator itsua *topo ibérico Talpa occidentalis*

Ortuan edo soloan lur metatxo bat? Satorra lurpean! Ilunetan bizi denez, ikusmen-galdua du eta usaimena erabiltzen du zulatzen dituen galeria eta zangak egiteko, lan gogorrena erpeekin eta ziztu bizian burutuz. Kanpoko giroa beroa eta sikua denean, babes bila-edo, lurpean orduan eta barrurago sartzen da; euriarekin, ostera, goranzko joera du. Zizareak eta koko-harrak jaten txapeldun; kontrakoa pentsatzen dugun arren, ez ditu ortuariak jaten eta benetan onuragarria da, lurra goldatu eta aireztatzeaz arduratzen delako baita ere. Ortuetatik uxatzeko kristalezko botilak jartzeko ohitura zabaldu samarra da: sartu beira ahoa gora begira duela eta hai-zeak botila barruan sortzen dituen uluekin ikartu eta alde egiten omen du. Auzokoen solora jotze-
ra haren baten!



Hilabete honetan...

MUNDUKO AHOTSAK....4 Khady Samb (Senegal)	KIROLZALE17 Ixa Rodriguez, boxeolaria
ELKARRIZKETA5-7 Javi Crespo eta Idoia Goikoetxea	IRITZIA18 "Errefuxiatuentzako babes eskubide uni- bertsalaren alde"
MALLABIAN ZER?8-9 Karmele Gisasola	SALEROSKETAK19 Saldu, erosi edo agurtu
ERMUAN ZER?10 PAACE	ANTZINAKOAK.....20 Ermuko eta Mallabiko argazkiak
ERMUAN ZER?11 Nahia Rojo, psikologo eta sexologoa	KALEKO INKESTA21 Badakizu zer egingo den merkatu pla- zan? Zuk zer egingo zenuke?
ERREPORTAJEA?.....12-13 Estibalitz González, 25 urte DROGETENITURRI	AGENDA22 Urriko agenda
MOTZEAN.....14-16 San Martin Azoka prestatzen	

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Khady Samb

Khadyk amets bat dauka: moda diseinatzailea izatea. Txikitatik duen pasioa da eta Ermuan jarraitzen du Senegalari hasi zen grina garatzen. Amerikako Estatu Batuetatik (AEB) eta A Coruñaetik igaro ostean, orain dela hiru urte Ermura heldu zen bere senarrarekin batera. Orain familiar hiru kide dira, euren semea jaio baitzen orain dela urte eta erdi.

-Nolako zen zure bizitza Bargnyn?

Txikia nintzenean hil zen gure ama eta izebarekin hazi naiz. Nire neba, berriz, amamarekin geratu zen. Beraz, nire lehengusuekin joaten nintzen eskolara. Lehengusuak dira, baina nik neba-arreba moduan tratatzen ditut. Nik, ordea, jostea maite izan dut beti eta, nahiz eta eskolara joatea gustatu, nik jostentza egin nahi nuen. Izeba ni konbentzitzen saiatu zen, ni eskarmentatzen, baina burugogorra naiz eta azkenean lortu nuen jostentza profesionalaren eskolan sartzea. Horretan aritu nintzen nebarengana joan aurretik.

-Non zegoen bada?

AEB-n. Seme-alaba bi zituen eta konfiantzazko norbaitek laguntzea nahi zuen euren egunerokoan. Nire izebak ere begi onez ikusi zuen ni hara joatea. Familiari laguntzeaz gain, josten ere jarraitu nuen AEB-n.

-Nabari da jostea zure pasioa dela.

Bai, han jendeak euren arropak josteko ematen zizkidan, baita hemen ere. Orain goi-jostentza eskolara noa



eta gauza asko ari naiz ikasten: diseinatzen, patroiak moztzen...

-AEB-etik zuzenean etorri zinen Ermura?

Ez, lehenik Senegalera joan nintzen paper batzuk konpontzera eta handik A Coruñaara joan nintzen, nire senarra han zegoelako. Gero, Ondarroan bizi den nebak bisitan etortzeko esan zidan eta Euskal Herriak liluratu ninduen. AEB-ko paisaia gogorarazten zidan honek. Nire senarra hona bizitzera etortzeko konbentzitu nuen eta hemen gaude.

-Noiz izan zen hori?

Orain dela hiru urte. Denbora honetan jendeak asko lagundu digu eta oso pozik nago hemengo herritarren harrearekin. Izugarria da hemengo jendea!

-Ondo moldatzen zara hemen beraz?

Bai, orain eskola-graduatu atera nabil. Izebari kasu egin izan banio

edukiko nukeen jada eskola-graduatu (barreak). Hala ere, ez da hain erraza norberaren herrialdetik kanpo bizitzea. Hiru urtez Espainiatik irten gabe egon behar izan naiz hemen bizitzea baimentzen didaten paperak lortzeko, eta nahiz eta betekizun guztiak betetzen ditudan, prozesua asko luzatzen ari da eta gogorra da. Ate irekiak dituen kartzelan bizitzea bezalakoa da horrela egotea. Hori albo batera utzita, nire ametsak betekiko ditudala ziur naiz.

-Zein da zure ametsa?

Modista izatea.

-Senegalera bueltatzea buruan daukazu?

Orain ikasketak amaitu eta moda munduan bidea egin nahi dut, baina zahartzean uste dut bueltatuko naizela.

Ekhi Velar

SAN ANTONIO OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaiaeta, 40 Tel. 17 00 63

AIZ

AIZ
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

IKASTOLA
1968tik Ermua euskalduntzen



Javi Crespo, irakaslea, eta Idoia Goikoetxea, Urko Punta GKE-ko kidea:

“Malin honen berri eman nienean ez zuten sinisten posible izan zitekeenik”

Javi Crespo emuarra Ondarroako institututan egon zen joan den kurtsoan ordezko irakasle bezala. Ikasleen eskakizunei kasu eginez, teoriatik praktikara pasatu zen eta munduan behara dutenei laguntzeko proiektu bat jami zuen martxan: antena parabolikoak sukalde bihurtzea. Demaseko arrakasta izan zuen ikasle, ikastetxe eta heritarren artean, eta Ondarroan egindakoak Europa osoan izan zuen oihartzuna. Sei sukaldeokin kilo antxoak frijitu zituzten Antxoak Egunean! Emuko Urko Punta GKE-ko Idoia Goikoetxeak horren berri izan zuenean, berehala jami zen Cresporekin kontaktuan eta ikasleek egindako sukaldeak Afrikara bidean egongo dira denbora gutxi baru.

- *Nola sortu zen proiektua? Non piztu zen ideia?*

Javi: Nik baneukan etxean ikasleek sortutako sukaldearen antzeko modelo txiki bat. Antena parabolikoak eguzki izpien bitartez funtzionatzen duen sukalde bihurtzea zen kontua. Hau da, antenaren barruan ispi luak jarri eta horiek fokua batean elkartzen dira izugarrizko beroa sortuz, eta 400°C edo 500°C lor daitezke. Horrez gain, eguzki izpien bitartez funtzionatzen duten labeak ere garatu ditugu.

Idoia: Nik honi buruz bideo bat ikusi nuen Interneten eta Afrikarako oso interesgarria izango litzatekeela pentsatu nuen. Orduan, Javiren telefonoa lortu eta elkarlanean hasi ginen.

- *Zu, Javi, irakasle moduan zenbiltzan Ondarroan*

J: Herritartasun ikasgaia ematen nenbilen han. Afrikari buruz berba egiten genuen, pobrezari buruz... baina ikasleek beti esaten zidaten ea zer egin ahal zuten hura aldatzeko. Orduan pentsatu nuen EITBko egoitza zaharrean dauden antenekin, ia lurtean botata zeudenak, zerbait egin genezakeela. Gainera erraldoiak dira! Bi metrotik sei metrorakoak daude. Tramite luzeen ostean antenak lortu genituen.

I: Ni, bitartean, Malira

joan eta han halako bat egiten saiatu nintzen, baina txarto atera zitzaidan. Itzuli nintzenezan ikusi nuen Javi eta ikasleak martxan zebiltzala.

J: Nik ere ez nekien ondo egiten, nirea ezberdina zelako. Hauek fokua kanpoan dute eta birziklatu egin behar izan genituen.

I: Malin horren berri eman nienean ez zuten sinisten posible izan zitekeenik eta ez dute sinistuko sukalde bihurtutako antena hauek han ikusi arte! Hala ere, Malin gure proiektuak garatzen duen apaiza, Jesus, Ondarroan sukalde hauek martxan jarri genituzenean etorri eta txundituta geratu zen.

- *Zenbat antena lortu zenituzten?*

J: Lau. Eskaera prozesua otsailean hasi genuen eta Aste Santuaren ostean hasi ginen antenak birmoldatzen Ondarroako institutuaren.

- *Nola hartu zuen institutuak antenak sukalde bihurtzeko ideia?*

J: Hasieran zuzendaria asaldatu egin zen (barreak). Bat batean kamioia agertu zen antenekin eta ez zen eskolan sartzen eta kanpoan utzi behar izan genituen. "Ziur zaude?", esaten zidaten. Ba bai, ziur nengoen eta, gainera, BHI-ko 2. mailakoek egin dute lana, 13-14 urteko

Javi Crespo Antxoa Egunean sukaldatzen.



gazteek. Unibertsitateko ikasle batzuk Ondarroako gazteek egindako lana ikustean nahiko harrituta geratzen dira.

- *Zure ikasleek nola egin dute lan?*

J: Oso pozik! Prozesu osoan zehar asko inplikatu dira: antenak lortzen, birmoldatzen, eta abar. Eta ez eurak bakarrik, gurusak ere pozik zeuden euren seme-alabek egindakoarekin.

- *Noiz aurkeztu zenituzten sukaldeak jendaurrean?*

J: Ondarroako Antxoa Egunean, ekainaren 4an. Izugarria izan zen eta jendeak flipatu egin zuen. Ikasleak oso pozik geratu ziren ikusi zutelako euren eskuekin egindako zerbaitek demaseko balioa izan dezakeela beste batzuentzat, beste horien egoera hobetzeko. Hain handia zen euren inplikazioa, uztailean institutura bueltatu zirela falta zen antena amaitzera.

- *Arlo tekniko eta mekanikoz gain, zerbait gehiago ikasiko zuten ikasleek, ezta?*

"Pena izango litzateke proiektu hau etetea"



Drogeteniturrri, 237 zkia.




SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-entresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

www.zermik.com

Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12

J: Noski. Matematika kontuak, teknologia... ikasi dute, baina hortik harago gauza askoz gehiago ikasi dute elkartasunarekin, moralarekin eta eskuzabaltasunarekin zerikusia dutenak. Asko inplikatu dira proiektu honetan. - **Izugarritzko oihartzuna izan du zuek egindakoak.**

J: Europako hainbat diru-laguntza programek interesa erakutsi dute (EACINC proiektuan sartu gintuzten hiru urtetarako, adibidez), hedabideetan agertu gara, hitzaldiak emateko eskaintza jaso dugu... baina orain ez dakit zer gertatuko den, nik

ez dudalako Ondarroako institutuan lanean jarraituko, aurten ez zaidalako egokitu hara joatea. Hala ere, egindako sukaldeak Afrikara joango dira, hori ziur. EITB-n oraindik dauden antenak gordeta ditugu, baina ez dakit Ondarroan proiektuarekin jarraituko duten edo zer egin dezakegun. Momentuz, hamar ikasle Milanera joango dira hango erakusketara batera eurek egindako bi labe erakustera eta gero, EACINC proiektuan jarraitzen badugu, Senegalera ere joango dira.

- **Ezinekoa izan da zuek proiektuarekin Ondarroan jarraitzea?**



Ondarroako ikasleak antenak sukalde bihurtzen.

"Ikasleak asko inplikatu dira proiektu honetan"

J: Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Ordezkaritzan egon ginen nire kasua aztertzeke, izan ere, ni ordezkari irakaslea naiz. Guzti honen koordinatzailea izanik, proiektu erraldoi bat egitea pentsatu nuen. Kooperazioa, energia berriztagarriak eta abar uzartuz proiektu integratzaile bat landu nuen, non irakasgai guztiek hartuko zuten parte. Ordezkaritzan baietz esaten zidaten lehenik, oso polita zela, baina uztailean izan zen guzti hori eta pertsona arduradunak esan zizun epez kanpo genbiltzala eta, beraz, zaila izango zela aurrera eramatea. Horrela, abuztuan ezetako eman ziguten. Orduan, Ondarroako plaza beste irakasle batek hartu du esleipenetan eta ni tokiz kanpo geratu naiz. Proiektua han dago, Ondarroako institutuan, baina ez dakigu zer gertatuko den. Pena izango litzateke proiektu hau etetea.

- **Eta institutukoek zer diote?**

I: Gu eurekin harremanetan gaude.

J: Nik ikasketa buruarekin hitz egiten dut eta nire adiskidea da. Proiektua handitzen zihoan eta aurtengo kurtsoari begira gauza asko genituen lotuta horren inguruan, baina orain zain gaude.

- **Esan duzue, hala ere, egindako sukaldeak Afrikara joango direla.**

I: Bai, Malira joango dira. Bamakon dagoen eskola batera eramango ditugu, Katiko nobizia eskola batera eta hango institutu batekin hitz egin behar dugu oraindik. Kontaktuak eginda daude eta noiz eraman zain gaude. Antenekin egindako hiru sukalde joango dira eta eguzki izpiekin berotzen diren hainbat labe. Oraindik material guztia eramateko kamioi bila gabiltza eta Maliko mutil bat arduratzen da hortaz. Kamioia erosten du, gauzaz bete eta haraino doa hilabete batez bidaian.

Ekhi Velar

AMAIA HARATEGIA

Bertoko Okelak

Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

es
egolek
electrizitatea
iluminazioa

M. de Valdespina 14 · ERMUA
943 17 00 61 · egolek@hotmail.com

Komunitateak

San Pelayo

Aholkularitza
juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

arral97.com
arral

Telf.: 943 17 60 75
banatzaile ofiziala

- Luis Cañas familia	- Pazo Señorans	- Txakoli Akarregi
- Añada Real	- Vicente Gandía	- Milana
- Vllera taldea	- Oriol Rossell	- La Loca Juana
- Gomez Cruzado	- Astobiza txakolina	- nitida

arral@arral97.com - Pol. Ind. Goitondo Galkoa Parcela Pab. 1 - Mallabia

OUTUMURO
Kafetegia

Kafe eta tarta bereziak
Aukera handia **TE** eta **INFUSIOETAN**

Astelehenetik ostiralera 9etan zabaltzen dugu

Karmele Gisasola, kirolaria:

“Boisen autografo eta argazki bila etortzen zitzaigun jendea”

Karmele Gisasola Iparraldeko jokoak praktikatzan ibili zen Boisen (Amerikako Estatu Batuak) ospatutako Euskal Jaialdian uztailaren 27tik abuztuaren 5era. Harrituta bueltatu da han kirolariei egiten zaien harrerarekin, izarrak bezala tratatzen zituztelako. Esperientziaz asko gozatu du eta errepikatzeke gogoarekin dago orain

- Zelan sortu zitzaizun Boisera joateko aukera?

Nire antzera herri kirolean zebiltzan inguruko batzuek izena eman zuten Boisera joateko. Eurekin batera neskak behar zituztela aipatu zuten, probatzearen, beti gizonezkoak joan izan direlako, eta nik baiezkoa eman nien. Nire aita joanda zen aurretik bi edo hiru aldiz eta ezagutzen zituen nondik norakoak. Gainera, aurten bera antolakuntzan aritu da eta biok joan gara.

- Zertan jardun duzu han?

Herri kirolen hiru erakustaldi egin genituen. Bata, Sports Night deiturikoa, iluntzean egin zen 4.000 pertsonen aurrean estadio batean. Demaseko ikuskizuna! Hasieran baikoitzaren izenak aipatzen zituzten megafoniatik, “Karmele Gisasola!”, eta gu txalo eta ke artean irteten ginen, argiak itzalita foku batek jarraitzen gintuela. Amerikarra esaten dena, guztiz. Hurrengo erakustaldiak jarraian izan ziren, zapatu eta domekan. Lehen artzainak bizi ziren karroekin, inguratu zuten dena eta barruan hiru pabilioi zeuden.

Horiatariko batean aizkolari eta harri-jasotzaileak aritu ziren, beste batean dantzariak eta azkenengoan kamisetak saltzen ziren. Gu, Iparraldeko jokoetan ibili ginenok, kanporean aritu ginen trontzan, txokor bilketan, ingude altxatzean...

- Herri kirolean dabiltzan emakumeak nahi zituztela aipatu duzu...

Bai, lau emakumezko joan ginen. Gurekin harritu baziren, Idoia Etxeberria harri-jasotzailearekin are gehiago. Neska batek ehundik gorako harria jasotzeak harridura handia sortu zuen hurbildu zirenen artean. Hango jendea pasada bat da: saioa amaitu eta jendea gugana etortzen zen autografo bila, argazkiak ateratzera... Gauetz afaltzera gindoazenean kalean geratzen gintuzten zoriontzeko, supermerkatura gindoazen eta jendeak keinuak egiten zizkigun ezagutzen gintuztelako, hurrengoan taxia ordaindu ziguten... izugarria izan zen! Hemen ia inork ez gaitu ezagutzen.

- Izarrak bezala!



Joan aurretik esan ziguten ikusmira handia zegoela han herri kirolen inguruan, baina gertatu zitzaiguna ez nuen imajinatzen, ezin nuen sinistu. Eta asko animatzen dute, ezin da konparatu hemengo publikoarekin. Hemen “aupa” edo horrelakoren bat entzun daiteke plazan zaudenean, baina han demaseko zalaparta sortzen da.

- Boiseko Jaialdiaz gozatzeke aukera izan duzu?

Programazio zabala egon zen jaialdiak iraun zuen bitartean, izugarriko giroa, baina amaitu eta hurrengo egunean dena hilda zegoen. Ez zegoen inor. Egia da ez genuela gauza askorik ikusi gure erakustaldiak prestatzen ibili behar izan

ginelako: harriak prestatu, egurra probatu... 70.000 behi dituen lursail batera joan ginen eta hango estadio batera ere hurbildu ginen. Boise nahiko hiri berria da, 125 urte ditu, eta dena telebistan agertzen den modukoa da, ez ginen harritu heldu ginean. “Dena ikusita daukat”, pentsatzen nuen.

- Nabari da euskal eragina Boisen?

Kaleetako pareta asko dantzari eta herri kirol marrazkiekin daude margotuta, ‘Basque block’ kaletik bazoaz, han bizi izan diren euskaldunen abizen guztiak aurkitu ditzakezu, Euskal Museoa dago... polita da. Alkatea ere euskalduna da!

Ekhi Velar

Oh la lá!

EMAKUMEENTZAKO MODA

Goienkale behea, z/g
48260 ERMUA (Bizkaia)
Telefona: 943 53 57 48
Mugikorra: 649 55 99 09
ohlalaermua@gmail.com

OSASUNA • ESTETIKA
EDERTASUNA

Marfil

Ile-apaindegi bat
baino gehiago!!

Egokitutako burua
garbitzeko konketa

943 17 28 09 • Goienkale 12

ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA



Zer gordetzen da lehenengo istorioak tarteko?

Bazenuen manera bat zeu zinena izateko ondokoa tentsioan jartzeko, berbetako keinu haiek edo abarkak lotzeko, buruari gora-behera indarrez eragiteko.

Saiatua guztirako prestua lan bakoitzeko.

Aurrera eta atzera beti urduri antzeko. Bihotza lehertu beharra izan duzu gelditzeko.



Galdetzen dute basoek -Non da gizon txiki hura? Perretxiko bila hemen aritu ohi zen figura? Txokorik sekretueneren ardura eta onura gura zuen azeria animalia modura. Sartu ote zara berriz bazter haietan barrura haietakoren batean etzango zinen gustura. Etortzen sentitu zaitut nola zenuen ohitura, eskutan ekarri duzu otzara bete tristura.



Geldu egin nizun nola zeneraman zahartzea zein ote zen jubilatut berrituaren trantzea. Lanerako gogo hura nahi zenuen mantentzea. Argitu nahian zenbiltzan euskararen iluntzea. Merezi duzu kantuak ozenki aieratzea Oiz tontorretik bertsoarik sakonena botatzea zure omenez haizeak euskal usaina hartzea maite zenuen horretan zure arima galtzea.

JURGI GARITAGOITIA SALEGI



“Non da Justo?” galdetuko dute gibelurdin eta urritzek.

Dagoeneko ohartu dira miraz begiratzen zien gizon txiki hura ez zaiela bisitan joaten. Biltzailea zen, baina ez harrapatzailea, bazekielako bizi gaituen eta bizi dugun herri honetan jaso dugun ondarea gurea bezain beste gure ondorengoena dela.

Jakin zuen ondarea biltzen, sustriak bilatzen eta ondorengoei bidea erakusten. Bazekien seme-alabei ezin diegula lur huts bat utzi, izan direlako garela eta kate horretan jarraitu nahi dugula, zimendu zaharren gainean biharra eraikitzen.

Beti esan izan digute inor ez dela ezinbestekoa, baina hutsune batzuek ez dira hain erraz betetzen. Ez adiorik.

PELLO MUGARZA

JUSTO AZAGIRRE MADARIAGA

(2015eko abuztuaren 7an)

*DROGETENITTURRIko kolaboratzaile izandakoa
eta Ibaia gure kidearen aita*

DROGETENITTURRIKO LAN TALDEA



PAACE, Afrika eta Ermuaren alde lanean

Ermuan bizi den senegaldar talde batek 2014an sortutako elkarte da PAACE (Afrikan nekazaritza sustatu eta energia sortzeko elkarte). Nahiz eta senegaldarrek sortu, Afrika osoari begira lan egiteko asmoa dauka elkarteak, baina ez hori bakarrik, gure herriari asko eskaini diezaiekeela uste dute.

Falilou Diop da PAACE-ko idazkaria. Senegaldarra da Diop eta hiru urte daramatza Ermuan bizitzen. Bere aberriko kideak bezala, oso gustura sentitzen da bertan. "Horregatik gaude hemen". Ermuan 80 bat senegaldar bizi dira eta Diopek duen informazioaren arabera, zifra gorantza doa. "Jendeak bere ongizatea aurkituko duen toki horretara jotzen du eta bertan ondo sentitzen badira, han geratuko dira", dio. Bera, adibidez, beste toki batzuetan bizi izan da Ermura heldu aurretik, "baina herri honek zer-bait berezia dauka. Oso toki abegitsua da. Herritarrak ire-

kiak dira eta oso pertsona onak".

Diop bezala, Ermuan bizi diren senegaldarrek herriko bizitza komunean parte hartu nahi dute. Bere iritziz, horrek hainbat gauza lortzeko asko lagunduko die. "Adibidez, gure integrazioa eta Ermuko biztanleria sensibilizatzea. Gu bizitzera gatzoz hona, aukera baten bila, baina eskaintzeko asko daukagula erakutsi nahi dugu. Ez gatzoz jasotzera bakarrik, baita ematera ere". Horregatik sortu zuten PAACE, Ermua eta Afrikan eragiteko. Gainera, euren ateak edonorentzat zabalik daudela argitzen du Diopek,

"berdin da nongoak diren".

Ermuan interkulturaltasunaren inguruan dabilta batez ere lanean, "hemen dauden senegaldarrak eta, orokorrean, afrikarrak, herrian integratu daitezten". Zentzu horretan, uztailean I. Jardunaldi Interkulturala antolatu zuten. Bertan, Afrikari buruzko argazki erakusketa bat egin zen eta honen bitartez Afrikaren beste aurpegi bat erakusten saiatu zen PAACE. "Afrikari buruz berba egiten denean beti gerrak, pobrezia... datorkigu burura, eta guk beste errealitate bat erakutsi nahi izan genuen". Gero, 'Afrikaren deia' izeneko hitzaldia eskaini zuten han lanean diharduen Alboan GKE-ko eta unibertsitateko irakasle den Mateo Agirre jesuitak. "Oso interesgarria izan zen, Afrikan aditua delako", Diopen ustetan. Afrika eta Ermuko emakumeen arteko topaketa ere egin zen eta ondoren jaki senegaldarrak dastatzeko aukera egon zen herri bazkarian. Santixauetako programaren barruan, bestetik, kontzertua ere eskaini zuten senegaldarrek. "Oso pozik gaude guzti honekin eta eskerrak eman nahi dizkiogu Ermuko herriari guztiagatik", azaltzen du Diopek.

Euren asmoen artean Ermuan tailerrak, topaketak... egitea dago. Adibidez, Afrikako perkusioan (Djembé) hasteko tailerra egingo da Alboka musika eskolan urritik aurrera. 16 urtetik beherakoentzat ostiraletan 17:00etatik 18:30etara izango dira klaseak, eta 16 urtetik gorakoentzat astearteetan 15:30etatik 17:00etara (Izena emateko PAACE-ra deitu, 632 157 330).

Eskola-ortua Senegalen

Ermuan ekin arren, Afrikara ere begira dago PAACE. "Ikusi dugu han kapitalismo eta multinazionalen eraginaren ondorioz, nekazari txikiei euren lurrrak nola kendu dizkieten, eta arrantzarako nazioarteko akordioek ere, hango arrantzale tradizionalei euren jarduna egitea mugatzen dieten". Badakite zaila dela eurek arazo horiek konpontzea. "Baina gure eskuetan dagoena egingo dugu", azpimarratzen du. Ermuko Udalaren laguntzarekin, adibidez, eskola-ortu bat egingo dute aurten Dagana herrian, Senegal iparraldean dagoen San Louis eskualdean. Jaso eta eman, argi dauka hori PAACE-k.

Ekhi Velaz

Falilou Diop, PAACE-ko idazkaria



MUGA **KIKLOAK**

San Pelaio 4A behea
Telefona: 17 64 77
ERMUA

OINAK **LEIRE MAYORA**
PODOLOGOA

Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
© 943 17 47 44

ZK

ZUZENBIDE KONTUAK
Lege eta kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com

Iberikoetan espezialistak

Mayte

Denda berria

VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412

NEREA IÑIGUEZ HORTZ KLINIKA

San Inazio 4 - Ermua
943 030 512 / niklinika@gmail.com

Nahia Rojo, sexologo eta psikologoa:

“Sexualitatea zerbait positiboa bezala transmititu behar dugu”

Nahia Rojo sexologo eta psikologo ermuarra da. Desirak Sexologia eta Generoa taldean egiten du lan sexualitate eta berdintasunaren arloan ikasle, irakasle eta familieii heziketa eskaintzen, eta baita elkarteei ikastaro espezifikoak eta aholkularitza zerbitzuak ematen ere (info.desirak@gmail.com edo 653721725). Gainera, udan telebistan ere ikusi ahal izan dugu ETB 1 –eko SexSua saioan.

-Zein arlotan eman behar ditu pauso handienak gizarteak sexualitatearen inguruan?

Sexualitatearen gaia oraindik tabua dela ikus daiteke, beraz erronka asko dauzkagu aurrean. Sexologia zientzia da berez, ikuspegi asko dituen eta gauza askotaz hitz egin ahal da horren barruan. Egia da oraindik paradigma horrekin gaudela eta erronka bat dela sexualitatearen ikuspuntua zabaldu eta naturalizatzea. Sexualitatea jaiotzetik hil arte denok dugun zerbait da eta, hala ere, egunerokoa ez ditugu sexualitate gaiak jorratzen besteekin hitz egiten dugunean.

-Ez duzu eboluziorik sumatzen naturalizazio horren inguruan?

Tabuak ezberdinak dira pertsona nagusi eta gazteak konparatzen baditugu. Egia da gure gurasoek jaso zuten heziketa eta guk jaso duguna ezberdinak direla, eta heziketa hori jaso dugunok gure seme-alabei heziketa sexuala emateko prest gaudela, baina nahiz eta eboluzioa egon, oraindik beldurrak daude. Hala ere, beldur horiek ezberdi-

nak dira. Adibidez, gurasoek ‘bekatua’ transmititu gintuzten: “Hori ondo dago”, “Hori normala da”... Orain beste beldur batzuk dauzkagu. Gaur egungo sexualitateak prebentzioarekin du zerikusi handia, gaixotasunekin kontuz ibiltzearekin. Lehen gaixotasunei buruz ez zen hitz egiten ezjakintasuna zegoelako. Gaur egun badakigu gaixotasunak kutsatu ahal direla sexu harremanen bitartez, baina balditzen diren mezuak beti beldurraren arloan ematen dira. Pasatu gara sexualitateaz hitz ez egitetik edo bekatu bat izatetik, beldurra edo ardua transmititzera. Beraz, hurrengo pausoa da, sexualitateak alderdi positibo eta politak dituela argitzea, gozameneko dela azaltzea... zerbait positiboa bezala transmititzea.

-Gizon eta emakumeek mezu ezberdinak jasotzen dituzte sexualitatearen inguruan?

Estereotipo asko dago eta orokortzea ez dago ondo, baina egunerokotasunean igartzen da sexualitatearen inguruan dauden mito askok bizi-jarraitzen dutela. Beldur-



rraren arloan, adibidez, neskek beldur gehiago daukate. Batzuk pentsa dezakete normala dela, bera gelditzen delako haurdun, baina gaixotasunak hartzeko arriskua biek daukate, emakumeak eta gizonak. Askotan kondoiari buruz hitz egiten da haurdunaldia saihesteko zerbait bezala bakarrik, gaixotasunak ekiditeko balio duela albo batera lagata. Juergan irtetarako orduan ere mezuak ezberdinak dira bata edo bestearantzat. Neskei beti “kontuz, ez etorri bakarrik etxera, kontuz mutilekin...”, eta mutilei ez zaie esaten “joan lagunekin eta kontuz neskekin”. Egia da neskek bortxatzen dituztela,

baina neskek ezin gara kalera beldurrarekin irten, horrela ezin garelako bizi. Bada hori apurtzen saiatu behar gara.

-Kontu horiekin apurtzeko, zu aritu zinen SexSua programa bezalako erremintak baliogarriak dira?

Sexualitateari buruz toki guztietan egiten da berba, baina hainbeste mezu jasotzen dugu momentu oro txikiak garenetik, gazteek eta umeek ez dakitela zer den informazioa, zer den errealitatea eta zerk ez daukan ia zerikusirik sexualitatearekin. Gure formazio saioetan saiatzen gara gazteak kritikoagoak izaten.

Ekhi Velaz

Pub Dakota



Probaleku, z/g
Ermua (Bizkaia)
dakotaermua@hotmail.com

KRABI
Ileapaindegia
Estetika



Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

Estibalitz González, 25 urte DROGETENITTURRIIn:

“Nirea kazetari baino, historialari lana izan da”

25 urte bete ziren iazko abenduan DROGETENITTURRIko lehen zenbakia argitaratu zenetik. Makina bat kolaboratzaile izan ditu geroztik, baina urte luze horien ostean egun lan taldean ari den bakarra dugu bera. Ofizioz irakaslea den arren, kazetari bezala egin zaigu bere aurpegia ezagun. Uda honetan 25 urte bete dira aldizkarian kolaboratzaile lanak egiten hasi zela eta ibilbide horretan, Ermuko eta Mallabiko historia jasotzeaz gain, pertsona askoren berri eman digu beraren ikerketa lanei esker.

- *Nola animatu zinen Drogetenitturrin parte hartzera?*

Garai haietan Euskal Birusaren batzarretan hartzen nuen parte eta denetarik egitea tokatzen zitzaigun. Gure proiekturik ezagunena eta arrakastatsuen aldizkaria zen. Gogoan dut 100 pezetatan saltzen genuela eta halaxe hasi nintzen, tontamentian.

- *Denborapasak, hitz gurutzatuekin...*

Eibarko Euskera zerbitzuan egiten nuen lan eta eskolaz kanpoko jarduerarako umeentzako denborapasak asmatzeko ardura nuen, banuen erraztasuna horretan. Taldean ideia proposatu eta 1990ko urteetako alean hasi nintzen laguntzen.

- *Aurreneko elkarrizketa edo erreportajea noiz egin zenuen?*

1991ko udaberrian eta Pispillu abesbatzari buruz-

ko erreportaje bat izan zen. Denborapasak baino errazago iruditu zitzaidan, bai!

- *Aldizkarirako gaiak nola sortzen zenituzten?*

Ahal zen bezala. Gogoan dut behin Eibarrera joan eta Fernando Muniozguren bertako Udaleko teknikariari aipatu geniola Ermuan elkarrizketak eta erreportajek egiteko, pertsonaia ezagunen falta genuela eta nor elkarrizketatu ere ez genuela sarritan jakiten. “Zuek bihurtu pertsona pertsonai”, horixe izan zen bere erantzuna. Geroztik, horixe izan da gure lema.

- *Ermuarrez idatzi izan duzu...*

Hautu hori era koizientean egin nuen. Gai askok berezko euskalki hori eskatzen zuten eta gerora ere hala jokatu izan dut beti.

- *Zertan aldatu da DROGETENITTURRI 25 urte hauetan?*



Lanerako seriotasunean eta profesionaltasunean. Garai gogorak pasa izan ditugu: ekonomikoki, politikoki... baina momentu guzti horietan ere, hilero hutsik egin gabe, hor egotea itzela da. Jende askoren ahalegina eta lanari esker lortu da hori.

- *Argazki zaharrak, ohiturak... herri ondarea izan da gure gai nagusietako bat.*

Nirea kazetari baino, historialari lana izan da. Horretarako asebetete izan nau

gehien. Gerra Zibil aurreko eta gerra osteko garaiek, adibidez, jakin-min berezia sortu izan didate betidanik. Maite dut Ermuko eta Mallabiko usadioak, etnografia eta historia jasotzea, gure arbasoen berri izatea... garrenaren iturburu azken finen.

- *Makina bat jende elkarrizketatu duzu...*

Adineko jendeak bere ondarea eman digu: bizimodu bat, pentsaera bat... Hizketarako gaitasun ikaragarria daukate, memoria aparta

Bobby Denetik zure maskotarentzat!

- Maskotenzako janaria
- Katu eta txakurrentzako osagarriak
- Maskoten autogarriketa
- Ileapaindegia
- Hezitzailea

Tel.: 943 05 44 20
Bizkaia etorbidea, 11 - eskuma
48260 ERMUA (Bizkaia)
bobby.todoparatumascota@gmail.com

enolimp
GARBIKETA ZERBITZUAK

Tel. 618 89 29 60 - 620 13 65 23
E-maila. enolimp@hotmail.com
48620 Ermua (Bizkaia)

Atariak - Bulegoak - Lokal komertzialak - Enpresak
Obra amaiera eta erreformak
www.enolimp.es

izateaz gain. Bizitza argazkietan gogoratzen dute: ikusi zuten aurreneko autoa, pilota desafio bat, titiriteroak etorri zirenekoa... Hizlari oso onak ezagutzeko plazerra izan dut.

- Elkarrizketa horiek orain herriko ondare bihurtu dira...

Elkarrizketa guztiak zintetan grabatzen nituen asmo berezirik gabe, baina orain dela zenbait urte, digitalizatzeko aukera eskaini zidaten eta makina bat testigantza daude ahotsak.com webgunean entzungai edo eskuragarri.

- Oraindik ere ondarea jasotzen jarraitzen duzu...

Ahal dudan neurrian bai. Ermuko jendearen gatzizenak, adibidez. Gai horrek asko erakartzen nau.

- Urte guzti hauetako momenturen bat...

100. alea kaleratu genue-

nean. Bultzada berezia izan zen, ale ahaztezina!

- Zer eman eta zer kendu dizu hainbeste ordutako lanak?

Gauza asko. Momentu on asko, baina guzti honen atzean lan ikaragarria dago ere: dokumentazio lana, datuak pertsona ezberdinekin kontrastatzeko premia... Neurri handi batean nire aisialdia, nire denbora ere mugatu du guzti horrek, baina merezi izan du zalantza barik.

- Zerk ematen dizu pozik handiena?

Urte guzti hauetan, ia 500 erreportaje edo artikulua argitaratu izana eta egindakoa noizbehinka irakurri eta lan bakoitzaren atzean izandako momentuak gogoaraztea. Testuetan niretzat, argazki eta hizkiez gain, bizitza dago. Pertsonen arimetara iris-

ten zara eta sarritan jendea hustu egiten da zure aurrean. Hori itzela da!

- Mindu egin izan zara hanka sartze baten ostean?

Momentuan amorrua sortzen dizu konturatzen zarenean, baina normalean ez zait jendea hurbildu txarto esaka-edo. Esaterako, gogoratzen dut gerra garaiko kontakizunekin izan nituen ideia trukaketa batzuk, bakoitzak bere ikuspegia zuelako.

- Markatu zaituen pertsonaren bat...

Izen bakarra esaten ez da erreza, baina nahiz eta elkarrizketatzeko aukerarik izan ez, 1.583an jaio zen Isabel Lobiano aipatuko nuke. Bera-ri buruzko istorio eta liburua nola iritsi zitzaizkidan ondo gogoan daukat.

- Aldizkariatz gain, beste lanen batzuetan ere murgildu zara azkenaldian...

Artxibategi kontuekin ibili naiz buru-belarri, Derioko Elizbarrutiko Artxiboan. Ermuak 5 jaiotza liburu dauka 1547tik 1900ra, baina haietako bat ez zegoen beraien datu basean sartuta. Neuk hartu dut hori indexatzeko ardura eta 1642-1719 artean jaiotako 1.100 ermuarren jaiotza datuak orain hor dagoz. Martxoan hasi eta uztailean arteko la-



1992an.



2009an.



2007an, Ermuko Ahozko Ondarea jasotzeko prestatzen.

na izan da. Makina bat abaderen letrak ulertu behar izan ditut.

- Luzaroan jarraitzeko asmorik?

Momentuz bai. Esku artean daukat Ermuko armagintzari buruzko informazio zabal eta mardula, eta horixe lantzen ari naiz.

Asier Ibaibarriaga



IZASKUN TXURRUKA



Goenkale 9 Bajo
48260 Ermua Bizkaia
94 317 66 90
peluqueriaizaskun@gmail.com
peluqueriaizaskun.wordpress.com



[arropa, bitxiak, opariak...]

Goenkale, 9 • 48260 ERMUA | 9431 70065
www.quetzalmoda.com

Ferreteria

ANBOTO

Burdindegia

Orain
KOTXEKO GILTZEN KOPIAK ere egiten ditugu



943 17 69 76 ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)
607 33 11 77 www.ferreteriaanboto.es



Montis DQ Mouth



CITROËN
AUTOS AMEDI

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
Telefonoa 943 17 04 14

26. SAN MARTIN AZOKAN:

* Errifak eskatzeko azken eguna, urriaren 23a

100€
(tabernariak)

50€
(dendariek)

=



+



688632874

Errifen takoa eskuratu nahi duten tabernariak 100€ ordaindu (dendariek, 50€) eta laguntzaile bandera jasoko dute. Informazioa: 943179350

26. San Martin Azoka azaroaren 14an izango da

Mende laurdenaren muga igaro eta gero, San Martin Azokaren beste edizio bat daukagu hurbil. Urtero legez, ermuar eta euskaltzaleek hitzordu berezia izango dute azaroaren 14an, larunbata, festa zoragarri hau ospatzeko. Iaz estrenez egin zen bezala, aurten ere animalien azoka aurreko urteetako baino handiagoa izango da eta idi pare baten jaitziera egingo da Zubiaurre kaletik. Horrez gain, erakusleho eta jantzi lehiaketak egingo dira, babajana Merkatu plazan, erromeria Luhartz taldearekin eta beste hainbat ekintza.

Antolatzaileek azpimarratzen dute egun horretan musu-truk zaudeten guztiok ongiatorriak izango zaretela. Lagundu eta parte hartu nahi izanez gero, deitu 943179350 edo 688632874 telefonora. Bestetik, Ermuko elkarte eta talde guztiei azaroko San Martin kulturalean edozein ekintza aurrera eramateko gonbidapena luzatzen zaie.

Nekazari eta ekoizleak

Azokan parte hartu nahi duten nekazari eta ekoizleak urriaren 5a eta 16a bitartean eman beharko dute izena Abiapuntu bulegoan (Konbentukoa 3). Durangaldeko nahiz Lea-Artibaiko eskualdeko herrietako ekoizle zein nekazariak bideratu ahaliko dute parte hartzeko eskabidea. Ezti, sagardo eta txakoli lehiaketetan, berriz, Bizkaiko udalerrri guztietako ekoizleak. Salbuespen moduan, mugakide diren Eibarko ekoizleak ere eskabidea bidera dezakete. Plazak mugatuak dira.

Artisauak

Aurreko urteetan egin den bezala, artisauen postuak ipiniko dira elizako plazatxoan. Euren produktuak bertan ikusgarri ipini nahi dituztenek ere izena eman beharko dute urriaren 16a aurretik 943179350 edo 688632874 telefonora deituta. Plazak mugatuak dira kasu horretan ere.

Bertsotoki jaialdia

Aurtengo bertso saioa urriaren 30ean izango da, Ermua Antzokian, 22:15etan. Uxue Alberdi, Jon Maia, Felipe Zelaieta, Alaia Martin, Beñat Gaztelumendi eta Oihana Bartra arituko dira bertsoetan, eta Ainhoa Aranburu izango da gai jartzailea. Sarrera 10 eurotan ipiniko dira salgai, eta aldeztu aurretik erosi ahal izango dira Lobiano Kultur Gunean, Kutxabaneko kutxazainetan eta webgunean, eta 944310310 telefonoan.

San Martin Kulturalea
Bertsotoki jaialdia
Ermua Antzokian, urriaren 30ean, 22.15ean

Sarrera: 10€
Lobiano Kultur Gunean,
BBKKo kutxazain,
webgunean eta
944 310 310
telefonoan salgai.

DESCUBRE-TE
Teak, kafeak, txokolateak,
ezti... eta baxera bereziak!!

Probaleku 4 Bis · Ermua, Bizkaia
943 03 15 81 · descubretenew@hotmail.com
www.teteriadescubre-te.com

Sagarra
Gastro-Pub

Probaleku 4 · Ermua · 943 946 810

'Entre orillas' 2015eko Folkezblaiko irabazle

'Entre orillas' musika talde kataluniarrak irabazi zuen Folkezblai lehiaketaren 10. edizioa. 'Ultraçans' izeneko talde galiziarra geratu zen bigarren. Epaimahaiaren berbetan finalera heldu ziren taldeek oso maila ona izan zuten eta proposamen aukera zabala erakutsi zien Orbe Kardinalaren plazara hurbildu zirenei. Horrela, talde kataluniarrak 3.000 euroko saria poltsikoratu zuen eta galiziarrek 1.500 euro. Talde biak 'Bruma Folk' kantabiarren, 'Irish Corner' nafarren, 'Seu' asturiarren eta 'Ghaveta' galiziarrekin aritu ziren finalean.

Zabalik da Juanita Ibaibarriaga lehiaketaren 22. edizioa

Juanita Ibaibarriaga euskarazko literatur eta erreportaje lehiaketaren 22. edizioa martxan da. Ermuarren artean euskaraz idazteko zaletasuna sustatzeko asmoz hasi zen lehiaketa da hau eta zabalik da bertan parte hartzeko epea. Bi aukera daude lehiaketan esku hartzeko. Lehen modalitatea herriko haur guztiei zuzentzen zaie, hau da, Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6. mailako eta DBHko 1. eta 2. mailako ikasleei. Maila horretako irabazleek 40 euroko sari bana jasoko dute erosketak egiteko txarteletan, Ermuko Merkatarien Elkarteko dendetan truka dezaten. Gaia librea da eta ez da eskatzen gutxieneko luzerarik. Bigarren modalitatean, berriz, nagusien lanak bilduko dira. Idazlana erreportaje bat izan beharko da eta elkarrizketak, aipamenak, dokumentuak edo interesgarritzat jotzen den edozein material izan dezake barnean. Lanaren luzera 4.600 eta 5.600 karaktere artekoa izango da, eta derrigorrez Ermua edo Ermuarekin lotura izan behar du gaiak. Lanik onenak 360 euro jasoko ditu eskudirutan.

Lanak Udaleko Euskara Zerbitzura, Lobianora zein Udal Liburutegira eraman daitezke edo euskara@udalermua.net helbidera bidali azaroaren 5a baino lehen. Sariak abenduaren 3an banatuko dira, Euskararen Egunean.

21. Mendiko Kultur-Kirol jardunaldiak antolatu ditu Artarraik

Artarrai Mendi Taldeak Mendiko Kultur-Kirol jardunaldiak antolatu ditu 21. urtez Ermuan. Irailaren 26an hasi eta urriaren 17ra arte ekintzaz beteriko agenda bete du Artarrai non mendi irteerak, hitzaldiak, rokodromoan ekintzak eta mendiarekin zerikusia duten bestelako jarduerak aurkitzen diren.



IRAKURKETA-KLUBEI HASIERA EMANGO DIE LIBURUTEGIAK

Udal Liburutegiak eta Euskara Sailak gazteentzako irakurketa-kluba antolatu du 9 eta 11 urte bitartekoek txikitatik irakurtzeko zaletasun eta ohitura har dezaten. Taldea hilean behin bildu da eta ikasturte osoan zehar zortzi saio egitea aurreikusita dute antolatzaileek. Saioak Lobianon egingo dira eta Peru Magdalena izango da horiek gidatu eta zuzenduko dituenak. Saio guztietatik sei euskarazko irakurgaietara dedikatuko dira eta gainontzeko biak gazteentzako materialera.

Irakurketa-klubean parte hartzeko inprimaki bat bete behar da eta Liburutegira eraman, edo eskatutako datuak (izen-abizenak, jaiotze-data, ikastetxea, telefonoa eta ama edo aitaren helbide elektronikoa) e-postaz biblioteca@udalermua.net helbidera bidali edo 943179212 telefonora deitu irailaren 25a baino lehen. Plazak mugatuak direnez, zozketa bidez esleituiko dira.

mari asun
LORADENDA
Diputazioa 9 - ERMUA - Tel. 943 174379

MALLA
ileapaindegia
Probaleku 8, behea © 943 17 18 50

T XALAPARTA ABERNA
Eta asteburuetan pintxoak, afariak eta bokatak!
Erdikokale 13 (Ermua) ENKARGVAK 943 030 299

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

optika itze
✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA
Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 51

MINBIZIAREN AURKAKO LASTERKETA EGINGO DA URRIAREN 18AN

Minbiziaren aurkako Espainiako Elkarteak Ermuan duen ordezkariak minbiziaren aurkako lasterketa solidario eta familiarra antolatu du urriaren 18rako. Parte hartu ahal izateko bost euro ordaindu behar izango dira eta, horren bitartez, gaixotasun honen inguruan ikertzeko dirua bildu nahi da. Izen-ematea Sferico kirol dendan egin daiteke irailaren 30a baino lehen. Lasterketa goizeko 11:00etan hasiko da eta 3.400 metro egin beharko dituzte parte hartzaileek. Korrikalariek, gainera, kamiseta bat jasoko dute. 38 lagun dabilta lasterketaren antolakuntzan eta Gaztela Leongo Zentroaren laguntza izango dute ibilbidean zehar, mahaia eta zintak ipini, edota behar den edozertarako.

Eskerrik asko txikurizaleok!

Santixau jaietako txikurixan nola edo hala laguntza eskaini diguzuen guztioi eskerrak eman nahi dizkizue Euskal Birusa Euskara Elkarrekin: Eli Areitioaurtena, Juanjo Gorritxategi, Estibalitz González, Aitor García, Amaia Arriaga, Eider Gisasola, Aitor Arriaga, Eli Txurruka, Rodol Ugena, Amaia Txurruka, Txomin Espilla, Jokin Txapartegi, Jon Bengoetxea, Asier Ibaibarriaga, Hiart Redondo, Iratxe Uribebarrea, Igone Amesti, Olatz Gil, Iraide Uriarte, Aiala Amesti, Josu Araiztegi, Aitzol Lejardi, Javi Vidal, Lorea Arrizabalaga, Rosa Jausi, Bilbo, Ilonga, Danel Gorrotxategi, Jokin Aranburu, Nerea Rubio, Olatz Delgado, Maitane M., Nagore Espilla, Alex Idigoras, Aintzane Plaza, Iñaki Bidosola, Iñaki Totorika, Iñaki Landa, Josu Gomez, Alazne Aiestaran, Iñaki Iturriaga, Iñaki Delgado, Bego Fernández, Apurtu kalia!, Iker Zaitegi, Iñigo Erauskin, Nerea Berriozabal, Matxalen Ziarsolo, Esther Larreategi, Leire Irazu, Antxon Ziarsolo, Alberto Belar, Iker Aranda, Endika Goitandia, Beñat Redondo, Armiamak, Libe Massie, Maria Ormaetxea, Ekhi Belar, Gaizka Areitioaurtena, Edurne Madariaga, Iratxe Arrizabalaga eta Paule Gorritxategi. Ahazten zaigun baten bati eta tragoxka bat hartzera eta dantzara etorri zinetenei ere, milesker eta datorren urtera arte!

Beldur Barik ikus-entzunezko lehiaketa abian da

Gazteen artean indarkeria sexista saihesteko asmoarekin orain dela zazpi urte Emakundek sortu zuen ikus-entzunezko lehiaketa da Beldur Barik eta aurtengo edizioa martxa da. Lehiaketa Euskal Herrian egiten bada ere, Ermuko Udaleko Berdintasunerako Sailak herriko proposamen onenak sarituko ditu, Ermuan erroldatutako pertsonen parte-hartzea bultzatu eta sustatzeko asmoz.

Lehiaketa 12 eta 26 urte bitartekoei dago zuzenduta, baina sariak ematerako orduan bi maila egingo dira. Bata, 12 urtetik 17urtera eta, bestea, 18tik 26ra. Euskal Herriko sariketan, bi kategorietan, 500 euroko lehen saria eta 300 euroko aipamen berezia banatuko dira. Gainera, publikoaren saria eta ikus-entzunezko produkzio onenaren saria ere emango dira, bakoitza 300 eurokoa. Ermuan banatuko diren sariei dagokienez, ordea, maila bietako irabazleek 300 euro eskuratuko dituzte.

Antolatzaileek azpimarratu dutenez, kalitate teknikoa edo artistikoa baino gehiago baloratuko da mezuaren kalitatea eta eztabaidak edo gogoetak sortzeko gaitasuna, nesken jabekuntza eta mutilen matxismoaren aurkako konpromisoa erakusten duten lanak.

Lanak entregatzeko epea azaroaren 11an amaitzen da eta www.beldurbarik.org/ partiticipa webgunean bete behar da parte hartzeko eskabidea. Irabazleen izenak azaroaren 28an jakinaraziko dira Amurrioren egingo den Beldur Barik Topaketan. Ermuko sari banaketa, bestetik, Lobianon izango da azaroaren 25ean eta Ermuko lehiakideen lanak ikusi ahal izango dira bertan.

SEHIGA
PROTECCION LABORAL
"LAN BABESERAKO
ORDINDURA

Goenkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com



hamburguesería TITANIC



*Pintxo dastaketa
poteoan*

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

GINEKOLOGA M^a Jose Ruiz de Porres dk.

- Bular-azterketa
- Minbizi miaketa prebentiboa
- Zitologia
- Bagina eta abdomen ekografia
- Mamografiak
- Bular-ekografia
- Nerabeei atentzioa
- Menopausiari atentzioa
- Densitometriak
- Haurdunaldiaren kontrola
- Kontrazepzioa

PARTIKULAR ETA ASEGURU-ETXEAK
IMQ, Lagun Aro, ASISA, AEGON,
Avant-Salud, ASEFA, DKV-Previsaa,
Previsora Bilbaina, COSALUD, HNA

RADIOLOGIA MADINA

Toribio Etxebarria, 4-1 ezk. 20600 EIBAR

(2 de Mayo kalea zena) Untzaga Plazaren, Ego-Gaineko autobus geltokiaren eta Corte Inglesaren alboan

Telefonoa: 943 20 28 57

Espainiako txapelkun kolpez kolpe

Ixa Rodriguez Espainiako boxeoa txapelkun bilakatu zen maiatzaren 30ean Murtzian 'minimosca' mailan. Ermuan jaiotako boxeolari honek orain dela hiru urte jantzi zituen lehendabiziko aldiz boxeoa eskularruak eta denbora labur honetan bere helburua lortu du. Orain ikasketei emango die lehentasuna, baina ez du bere pasioa albo batera utziko.

Ermuan jaiotako bazen ere, herritik kanpo bizi da gaur egun Ixa Rodriguez. "Mallorca, Alacant eta Gasteizen bizi izan naiz, eta orain Soroluzen nago", dio Rodriguezek. Hala ere, Ermuarekin harreman estua mantentzen jarraitzen duela aitortzen du. "Hemen pasatu dut haurtzaro osoa eta Gabonetan beti etortzen naiz". Bada Gabon hauetan Espainiako boxeoa txapelkun moduan igaroko ditu festak.

Espainiako Txapelketan ez zuen bide erraza izan Rodriguezek. Lehen borrokan Aragoiko ordezkariaren kontra lehiatu zen. "Lehia gogorrena", bere hitzetan. Borroka nulua izan zen eta epaileek erabaki zuten ermuarrak merezi zuela irabaztea. Gero Kanariar Uharte eta Madrilgo ordezkariak utzi zituen kalean,



finalean Andaluziakoaren aurka lehiatu aurretik. "Oso final gogorra izan zen oso nekatuta nengoelako", baina txapelketa eskuratu zuen.

'Minimosca' mailan 48 kilotik beherakoek borrokatzen dute. Ixa Rodriguezek, normalean, 53 bat kilo pisatzen ditu, beraz, maila horretan borrokatu ahal izateko kiloak galdu behar izan zituen. "Hori abantaila izan zen niretzat, maila horretakoaren artean ni altuena nintzelako eta gorputz gehien nuelako", dio. Izan ere, bere helburua etsaiak baino indar gehiago edukitzea zen.

Sandatik boxeora

Boxeoa erekin duen harremana orain dela hiru urte hasi zuen. Rodriguezek Sanda praktikatzen zuen, "Kick Boxingaren antzeko arte martziala", eta Eibarren Sanjuanetan egiten den boxeoa jaialdian Josu Lopategi ezagutu eta euren kirol ibilbideak batu zituzten. Hiru urte pasa dira ordutik eta jada Espainiako txapelkuna da. "Oso burugogorra naiz eta gauza bat lortzea nahi badut, ez naiz



gelditzen hura lortu arte". Izan ere, Ixak aipatzen duen bezala, "ring gainean eguneroko norbera bizitzan den moduan portatzen da". Pertsona oso urduria dela aitortzen du eta etsaiak ez dakitela zein kolpe emango dien, berak ere ez dakielako.

Rodriguezek esanetan ez du taktikarik erabiltzen borroketan. Gainera, teknika asko ez duela aitortzen du. Beraz, nola lortu du Espainiako txapelkun izatea? "Etsaiak diote zortzi birika dauzkadala". Bere esanetan, ring gainean ez da inoiz gelditzen. "Ia ez dut boxeoa ikasteko denborarik

izan, urte gutxi daramatzat honetan, baina esan dudana bezala, burugogorra naiz eta teknika falta hori beste gauza batzuekin konpentsatzen dut".

Orain hiru hilabeteko atsedena hartu du Ixa Rodriguezek. "Gustuko dut boxeolariaren bizitza, baina badakit noiz edo noiz amaitu egingo dela eta zerbait egin behar dut etorkizunera begira", dio. Ikasketei heldu die orain, baina egunero Soroluzen duen klubean entrenatzen jarraitzen du. Etsaiak lasai egon daitezke hilabete batzuetan behintzat!

Ekhi Velar

Caperos

Pinboak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitarkekoak
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

Egaña

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

Errefuxiatuentzako babes eskubide unibertsalaren alde

Elkartasun handiko bolada bat zabaldu da Mendebaldean. Ematen du bat-batean jabetu garela Mediterraneo zeharkatu nahi duten milaka lagunentzat.

Hamarkadaz hamarkada paraje guztietako migratzaileek itsasoaren bidea hartu dute hautsitateko gizarteetatik, gerretatik edo miseriatik ihesiz. Afrikan edo Asian gertatzen den legez, gatazka haietako asko egonkor-tu eta ahaztu egin dira. Hain zuzen ere, orain gerraren eta txirotasun larriko biktimei laguntzeko prest agertzen diren potentzia mundialak dira gatazkei eusten dietenak.

Zaharrak berri ordea. Hamar-

kadang dira potentzia ekonomiko eta militarrek, beraien boterea tokian-tokian ziurtatzeko asmoz, bertoko estatu edota erakundearen alde egin dutela, jehadistak barne, ezegonkortze-kampainak edota gatazka etniko-erlijiosoak baliatuz. Ekialdea kontrolpean izateko borroka sutsu horren adibiderik adierazgarriena Irak (2004) dugu. NATOren esku hartze hark gizartearen erabateko zatikatzea eta inoiz ez bezalako giza hondamendia eragin zituen, baina aldi berean egundoko etekin ekonomikoak ekarri ziren AEB-ek eta bere aliatuei. Siria jazarpen inperialistaren beste adibide bat baino ez da. Zonaldean dituzten interes militar, ekonomiko eta geoestra-



Komite Internazionalistak

tegikoak defendatze aldera, armen merkatua kontrolatzen duten potentzia militar eta ekonomiko handiek alderdi batari zein besteari lagundu diete azken lau urteotan, armak, dirua edo entrenamendua eskainiz. Horren emaitza aski ezaguna da: hamaka mila hildako eta milioika iheslari eta errefuxiatu.

Leku seguru batean eta duintasunez bizitzeko bere jaioterri-tik ihes egin behar izan duten errefuxiatuei babesa emateko agindua betetzea gure gobernuen betebeharra da, eta merezi duten harrera egiteko lan egin behar du gure gizarteak.

“ **Siria jazarpen inperialistaren beste adibide bat da** ”



FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISSETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

uriarte asesores ✓

Aholkularitza fiskala eta lege aholkularitza

Komentukoa 3 behea · Tel. 943 179 040 · Faxe 943 179 197
 48260 · Ermua · Bizkaia

solozabal tabakoak

torrekua 1
 tel./fax: 943 17 07 33



URRETA burdindenda

- * Etxea
- * Tresneria
- * Brikolajea
- * Enrailak
- * Giltzak
- * Sarrailagintza
- * Kit altzariak

Beharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

**ETXEBIZITZA
SALGAI**

Gutziz jantzita eta bizitzera sartzeko moduan. 3 logela, 2 komun, egongela, sukalde berria, 5 horma-armairu, trasteroa, igogailua, argitsua (130 m erabilgarri). Eibarko erdikaldean. Deitu 626.20.38.38 edo 699.49.52.49 telefonora



Irailak 25:
Zorionak Ainere! Ondo pasa zure 2. urtebetetze egunean. Patxo handi bat familia osoaren partez eta batez ere lehengusu lkerren partez



Irailak 27:
Zorionak Markel, ondo pasa zure 5. urtebetetzean! Ama eta aitaren partez.



Urriak 1:
Muxu pila etxekoen partez zure seigarren urtebetetzean. Segi horrela!



Irailak 19:
Añur 9 urte! Segi horrela, oso alai eta maitakor. Zure anaia Jon, ama eta aitaren partez... ZORIONAK!



Urriak 3:
Zorionak Piedi! Musu handi bat Jone eta Aitzolen partez, eta egun zoragarria pasa dezazula!

**Hurrengo
zenbakirako
azken eguna:
URRIAREN 14a**



Abuztuak 15:
Zorionak Ekaitz! Bi urte poztasuna ematen! Zure gurasoak.

Proba-Leku
Heapaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

PUB YOMY

**Zubiaurre
kalearen
bihotzean**


SAGARDUI
poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua · 943 170305

**MALLABIA
1995**

Argazki hau Trabaku Goiko Taberna aurrean aterata dago 1995ko abuztuaren 5ean. Bertara ezkondu zan Balentina eta bere ahizpa eta lehengusinarekin agertzen da.

Bertan agertzen dira: Isabel Gallastegi Alzola, Maria Gallastegi Alzola, Matea Gallastegi Azula, Juanita Gallastegi Txurruka, Candida Gallastegi Azula, Felisa Gallastegi Txurruka, Balentina Gallastegi Azula, Evarista Gallastegi Azula, Dolores Gallastegi Azula eta Agustina Gallastegi Txurruka.

**ERMUA
1970**

Teresa Murga ikastetxeko arkupea praka eta gona motzez gainezka, Don eta Doñaz beteta: hantxe D^a Teo, D. Teodoro, D. Amador, D. Saturnino.... Maisuek egin zuten aurrengo aurkezpena, ondoren mutil koxkor bat altxatu zuten jarleku batera mikrora iristen ez zela-eta, poxpolinez jantzitako neskatoak ere zer irakurri izan zuen eta azkenik denek ikusteko desiratzen zeudena: nesken gimnasia ikuskizun aparta hura. Norbait ezagutzerik burutxo guzti horien artean? Ez zarete makalak!

Enter

INFORMÁTICA

SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOKA

VI Centenario 19, behea
Tel. 943 17 90 37
e-maila: enter-i@arrakis.es

san pelayo
clínica dental horts clínica

San Pelayo 5, 1^o
Ermua (Bizkaia)

Olatz Garcia Arregui

943 17 04 04

Pub SCORPIO

Zubiaurre, 21
ERMUA

Denda gutxi batzuk jarraitzen dute bere lekua Merkatu Plazan izaten, eta herritar eta politikarien ahotan bertan zer egingo den entzun da azken aldian. Proposamenak, usteak eta zurrumurruak ahoz-ahoz dabilta herrian, baina oraindik ez da ezer erabaki ofizialki bere gainean.

Badakizu zer egingo den Merkatu Plazan? Zuk zer egingo zenuke?



Drogeteniturrin irakurri nuen arkitektura ikasle batek bazuela proiektu bat Merkatu Plazan gazteei zuzendutako zerbeit egiteko. Niri, adibidez, iruditzen zait herrian gaztete bat falta dela, baina ez dakit hori toki aproposena den. Hala ere, pena ematen dit gaur egun Merkatu Plaza horrela ikustea. Gauza asko egin daitezke bertan.

Maitane Mugerza, 18 urte



Nik ez dut ezer entzun Merkatu Plazaren inguruan. Pentsatzen dut bertan gaztetea egitearena ideia ona dela. Ez zait besterik bururatzen orain. Hori bai, nire ustez herriaren hitza entzun behar da ezer egin baino lehen, herriari kontsultatu.

Irati Yarza, 18 urte




Egia esan Ermutik kanpo egoten naiz sarritan eta ez dut gauza askorik entzun Merkatu Plazaren inguruan. Egia da barruan ez dagoela ia ezer. Bertan umeentzako tokiren bat jarriko nuke edo espazio berde bat. Argi daukadana da merkataritza gunerik ez dudala nahi bertan.

Txetxu Garcia, 46 urte



Ez dakit zer egingo duten Merkatu Plazarekin. Batzuk diote bota egingo dutela, baina nik ez dut uste. Herrian denetarik daukagula uste dut. Ingurura begiratzen badut, denetarik ikus dezaket, merkataritzaren alorrean behintzat. Egia da, hori bai, oso toki onean dagoela Merkatu Plaza.

Angel Calero, 71 urte



Tasio eta Sabino

- Batzuen artean eraili zuten eta bera bakarrik hil zen.
- Espero dut etorkizunean erabilgarria izatea.
- Eta herriarentzat izatea, je, je.

ZINEA

3tik 5ra
10etik 12ra
17tik 19ra
24tik 26ra
30etik 2ra
 Ermua Antzokian.
 Hainbat film eta
 ordutegi.

ZINE-KLUBA

Hilak 1
Hilak 8
Hilak 15
Hilak 22
Hilak 29
 Ermua Antzokian.
 Hainbat film.
 20:30ean.

UMEENTZAKO ZINEA

Hilak 4
Hilak 11
Hilak 18
Hilak 2
 Ermua Antzokian.
 Hainbat
 film. 17:00etan.

ERAKUSKETAK

Hilaren 11ra arte:
 Margoa: Manuel Pérez Sánchez.
Hilaren 13tik 25era:
 Mikologiari buruzko argazkiak: Lehiaketara aurkeztutako lanak.
 Lobiano Kultur Gunean.
 18etatik 20etara.

MUSIKA

Hilak 9:
 Kontzertua: Vanesa Martín. 22:15ean.
 Ermua Antzokian. Sarrera: 12€.
Hilak 16:
 Musika ikuskizuna: "La flauta mágica". Dei Furbi Konpainiaren eskutik.
 22:15ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 10€
Hilak 17:
 Kontzertua: La mexicana clandestina. (Mexiko rebelde jaialdi).
 19:30ean. Orbe kardenalaren plazan.
Hilak 17:
 Jazz kontzertua: Gonzalo Tejada Quartet
 20:00etan. Lobiano Kultur Gunean. Sarrera: 8€

Hilak 23:
 Poltsikoko opera: "La Traviata", Camerata Lirikaren eskutik.
 22:15ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 10€

ANTZERKIA

Hilak 2:
 "Distancia: 7 minutos", Titzina Teatreraren eskutik.
 22:15ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 10€

UMEENTZAKO EKITALDIAK

Hilak 2, 9, 16, 23 eta 30:
 Barixakuetan: haurrentzako jolasak. 17etan.
 Orbe kardenalaren plazan.
Hilak 24:
 Haurrentzako musikala: "Opera abeslaria", Deabru Beltzak taldearen eskutik. 17etan.
 Ermua Antzokian. Sarrera: 4€

BESTELAKOAK

Hilaren 4ra arte:
 Gaztela-Leoneko Kultur zentruaren astea: hainbat ekitaldi.
Hilaren 2tik 4ra:
 Erdi aroko azoka: hainbat ekitaldi. San Pelaio plazan.
Hilaren 17:
 Euskadiko Anadauziako elkarten topaketa. 11etatik. San Pelaio plazan.
Hilak 22tik 25era:
 Mikologiari buruzko ihardunaldiak: hainbat ekitaldi.
Hilaren 30:
 Bertso jaialdi: Uxue Alberdi, Jon Maia, Alaia Martin, Beñat Gaztelumendi eta Ohiana Bartra. Gai-jar-tzailea: Ainhoa Aranburu. 22:15ean.
 Ermua Antzokian. Sarrera: 10€.

Patxi López



**TXINDURRI
 TALDEA
 Tokian
 tokiko**

PRO



- ARRAINDEGIA
 - ITSASKIAK
 - ARRAIN FRESKOAK ETA IZOZTUAK

**ESKAINZA BEREZIA
 OSTIRALERO**

Zubiaurre, 21 baxua
 Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)
 " 17 24 33 (etxea)
 Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59
 ERMUA

**Infreñu
 Taberna**



Kardenal Orbe plaza
 943 174584
www.infretaberna.com

ALBOKA




**MUSIKA
 ESKOLA**

- Akordeoia
- Biolina
- Biolontxelo
- Bonbardinoa
- Flauta
- Kantua
- Gitarra
- Gitarra elektrikoa
- Gitarra baxua
- Lengoia musikala
- Klarineta
- Panderoa
- Perkusioa
- Pianoa
- Saxofoia
- Trikitrixa
- Tronboia
- Tronpeta
- Txistua

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

GREMIOEN

GIDA



DEKORAZIOA
OBREN KOORDINAZIOA * MARIAN CARRACEDO DEKORATZALEA

dekorazio estudioa

trastévere
barruko dekorazioa

san pelaio, 26 ermua
tel/faxa. 943 17 90 89
trastevere@wanadoo.es

ITURGINTZA
ITURGINTZA, GAS ETA KALEFAKZIOA

LUIS VALLE

Bainugelen erakusketa
943 17 15 56

Tailerra
943 17 23 56
Goienkale z/g

PINTURAK

J.LUCAS
PINTURA EN GENERAL

630 22 51 36

ELEKTRIZITATEA

BETA

**ARGIZAPENA
ELEKTRIZITATEA**

- Proiektuak
- Instalazioak
- Erreformak
- Kalefakzioa
- Gaueko tarifa
- Erradiadore elektrikoak

Diputazio, 13 943 17 65 25
689 23 31 71

ERROTULAZIOA

ROTEK
rótulos

- Argi errotuloak
- Autoendako errotuloak
- Barne errotulazioa
- Irudi korporatiboa
- Neoia
- Inpresio digitala formato handian

Goitondo behekoa industrialdea
C-1 partzela, 5 behea (Mallabia)
eta Faxa: 943 17 00 36 • rotek@telefonica.net

ETXE-BIRGAITZEAK

BERRITZE LANAK
ZURE ERAIKINEAN
Ez dakizu nondik hasi?
GURE LANTALDE TEKNIKOK
LAGUNDUKO DIZU

ZUK ERABAKI

www.spara.es
info@spara.es
943 17 70 97

IZARRA CENTRE Enkima - Zeharkalea, 36, 3º - 48260 Ermua - Bizkaia

PERSIANAK

TOLDOS Y PERSIANAS ORBE

- MUNTAIA ETA KONPONKETA
- MOTORIZAZIOA
- PERSIANA DEKORATIBOAK
- PERSIANA BILGARRIAK
- SEGURTASUN PERSIANAK.

TAILERRA:
Zearreko buelta 2
943 17 66 34
630 01 13 41

ERAKUSKETA: Karabixa, 1
Tel. 943 17 98 60

AROTEGIA

iraner
Puertas EDER Carpinteria

- Ateak, horma-armairuak, tarimak...
- Burdingeko artikulua salgai
- Giltzen kopiak, ebanisteria
- Gremioen koordinazioa

Bizkaia etorbidea 10, behea Ermua. Tel. 943174925 - iranercb@gmail.com

Gremioen Gidan publizitatea jarri nahi baduzu...
943 17 93 50 / 688 63 28 76 / drogeten@gmail.com

aek

euskara praktikoa

30 urtean, 50.000
lagunek
ikasi dute euskara
gure 100
euskaltegietan



Eman izena

-  Eskolak
-  Mintza praktika
-  Barnetegiak
-  On-line
-  Autoikaskuntza
-  Normalizazio planak
-  Titulu homologatuak

 673 200 100 · 946 464 000
www.aek.eus 

 Garena ikasteko
para entendemos
pour se comprendre  

Sara Cozar Aktorea, AEK-ko ikasle ohia

Ermuko Kaltxango AEK

Euskalduntzea · 4. maila (C2) aurrez aurre
Azterketa ofizialak prestatzeko ikastaroak · Autoikaskuntza · Berbalagun
Txandaka aritzeko aukera
Ermuan, %75era arteko diru-laguntzak
Mallabian, %100era arteko diru-laguntzak
AZKEN EGUNAK

943 171 940 / 607 623 961
kaltxango@aec.eus

